

XXXIII. MENDI BIZIKLETA IBILALDIA 2026

Araudia

1. Artikulua.- Izaera turistiko eta herrikoia duen froga denez ez da ez denborarik neurtzen, ez sailkapenik egiten
2. Artikulua.- Zikloturista eta txirrindulari orok har dezake parte, federatua izan edo ez.
3. Artikulua.- Partehartzaile guztiek zirkulazio arauak errespetatu eta trafiko arduradunen eta antolatzaileen argibideak jarraitu beharko dituzte.
4. Artikulua.- Partehartzaile guztiek mendia eta bertako animaliak errespetatuko dituzte.
5. Artikulua.- Izen emateagatik 15 euro ordaindu beharko dute Gure-Txokoako bazkide edo federeratuek (10 euro haurren kasuan). Gainerakoek 5 euro gehiago ordaindu beharko dute, eguneko segurua gastuak direla eta.
6. Artikulua.- Izen emateagatik partaide bakoitzak ibilaldi osteko zozketan partaidetza bat izango du.
7. Artikulua.- Inskripzioak egunean bertan ere egin daitezke 8:00-9:00 bitartean Gure Txokoa elkartean (Eztegara Pasealekua, 17, Bera)
8. Artikulua.- 16 urte edo gehiagokoentzat bi ibilbide ezberdin daude:

Itzuli arrunta: 34 km eta 1100 m elebazio positiboa

Rokanrol: 37 km eta 1400 m elebazio positiboa

16 urtetik beherakoentzat ibilbide bakarra

Haurrak: 9 km eta 100 m elebazio positiboa
9. Artikulua.- Adingabeek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute edo gurasoetakoren batek lagunduta parte hartu.
10. Artikulua.- Haurren ibilbiderako gurasoen laguntza beharrezkoa da hasiera puntura eramateko. 8.45-9:00 inguruan hasiko da bizikleta eta haurren garraioa martxako abiapuntura Gure Txokoa elkartetik (Eztegara Pasealekua, 17, Bera)

11. Artikulua.- Antolakuntzak bi SVB anbulantziz osaturiko laguntza medikoa eskainiko du.
12. Artikulua.- Zeharkaldiko partehartzaitzat joko dira soilik; izena zehaztutako moduan eman dutenak, martxaren intsignia daramatenak, 1. Artikuluak dioena errespetatzen dutenak eta, martxaren buru izango den ibilgailuaren eta erratz-autoaren artean zirkulatuz, antolatzaileek ezarritako ordutegia eta ibilbidea behar bezala betetzen dutenak.
13. Artikulua.- Zeharkaldiaren ibilbidean zehar kaskoa jantzita erametea derrigorrezkoa izango da.
14. Artikulua.- Antolatzaileek aldez aurretik abisurik eman beharrik gabe proba honetako ibilbidea alda dezakete, partehartzaileen segurtasunerako edo martxaren onerako bada.
15. Artikulua.- Martxan ateratzeak automatikoki araudi honetako artikuluz guztiak onartzea esan nahi du.
16. Artikulua.- Ez da inolako erreklamaziorik onartuko.